

NETFLIX ZERBITZUARI LOTUTAKO BALDINTZA PARTIKULARRAK

NETFLIX zerbitzua Netflix Servicios de Transmisión España SLk emango du bere aplikazioaren edo <https://www.netflix.com/es/> webgunearen bidez.

- NETFLIX zerbitzuaren funtzionalitateak, bateragarritasuna eta elkarreragingarritasuna, baita aplikazioa eta sarbidea instalatzeko beharrezkoak diren bertsioak ere, NETFLIXek eskaintzen dituen ezaugarrietara eta haren ezaugarri teknikoetara mugatuta daude, eta hari dagokio zerbitzua emateko eginkizuna.
- Zure zuntzeko eta/edo mugikorreko paketeen Netflixez baliatzeko, Netflix zerbitzua aktibatu behar duzu, posta elektronikoz eta/edo SMS bidez jakinaraziko dizugun aktibazio-prozesuari jarraituz.
- Zerbitzura sartzeko, erabiltzaile-izen bat eta pasahitz bat beharko ditu bezeroak; horien bidez, NETFLIX plataformara sartuko da, eta, handik, zerbitzua kudeatzeko aukera izango du, NETFLIXen Baldintza Orokorrak onartu ondoren.
- Jada NETFLIXeko kontu bat baduzu, NETFLIX barne duen zure zuntz- eta/edo mugikor-paketearekin lotu dezakezu, kontratatutako paketearen zati gisa NETFLIX aktibatzen duzun unetik aurrera. NETFLIXek zure harpidetza-kuota bereiz kobratzen jarraituko du, harik eta lehenagotik daukazun NETFLIXeko kontua NETFLIX barne duen zure zuntz- eta/edo mugikor-paketearekin lotzen duzun arte. Baldin eta lehenagotik duzun NETFLIXen kontu bat kontratatutako paketeari lotzen badiozu, eta Netflix barne duen zuntz- eta/edo mugikor-paketeen baja ematen baduzu, horrek ez du ekarriko Netflixen harpidetzan automatikoki baja ematea, eta NETFLIXek automatikoki kobratuko dizu dagokion kuota, NETFLIXek zure kontuari lotuta duen ordainketa-moduaren bidez. NETFLIXeko kontuaren xehetasunak berrikusi nahi badituzu, ikusi NETFLIXen webguneko “Nire Kontua” atala.

Baldin eta NETFLIX barne duen zuntzeko eta/edo mugikorreko paketearen kontratua sinatu aurretik ez bazenuen NETFLIXen harpidetza aktiborik, eta baja ematen baduzu NETFLIX zerbitzua barne duen zuntzeko eta/edo mugikorreko zerbitzuan, automatikoki baja emango zaio NETFLIXek emandako zerbitzuari.

- YOIGOren NETFLIX barne duen zure zuntz- eta/edo mugikor-tarifei lotutako zure helbide elektronikoa partekatuko dugu NETFLIXekin, NETFLIX barne duen zure zuntz- eta/edo mugikor-paketeen sartutako NETFLIX zerbitzua aktibatu ahal izateko. Lagapen horretarako legitimazio-oinarria da kontratatutako paketeari zerbitzua ematea. YOIGOren NETFLIX barne duen zure zuntz- eta/edo mugikor-tarifak kontratatuta daukazun bitartean partekatuko dugu NETFLIXekin datu hori. Zure eskubideez balia zaitzke privacidad-yoigo@yoigo.com helbidean. Halaber, NETFLIXen webgunean ikus dezakezu Netflixen Pribatutasun Politika.
- Yoigorekin kontratatutako zerbitzua aktibatu ondoren, eta NETFLIXen kontua aktibatu ondoren baldintza hauen eta NETFLIXen baldintza orokorren arabera, NETFLIXen zerbitzura sartu ahal izango zara.